

getxoBerri

Getxo
bizi ezazu


f t #GetxBiziEzazu

Doako alea

1586 zk.
www.getxo.eus

Apirilak 2
>> Apirilak 19

2020



Behar duenari laguntza emateko, inprimaki bat prestatu da prestakuntza-beharrak ezagutzeko eta online mintegiak antolatzeko

Udalak Getxoko merkataritza animatzen du ingurune digitala bere jardueraren erakusleho gisa erabiltzera

Koronabirusaren krisiak eragindako osasun-larrialdiko testuinguru batean, Getxoko udalak dei egiten die saltokiei, elkarteei, zerbitzu-enpresei, ostalaritzari eta herritar guztiei ingurune digitalean egiten duten jarduerara ikusarazteko, eta horrela, udalerrian presente egoten jarraitzeko. Merkataritza-sektoreek bizi duten zailtasunaz jabetuta, Getxoaktibatu programak egoera zail hau baliatu nahi du, merkataritza-sarearekin batera pandemiaren ondoriozko krisia gainditutakoan posizio hobean egoten lagunduko dioten estrategiak pentsatzeko.

Idea horrekin, GetxoAktibaTU programak, Instagramen bideoak argitaratuz (#GetxoAktibaTU etiketarekin), Getxon mugimendu bat sustatzeko ekimen bat jarri du abian. Hala nahi duten eragileek laguntza izango dute isolamendu egoeran dauden Getxoko herritarrekin harreman

na mantentzen eta zabaltzen jarraitzeko. Sare sozial hori aukeratzearren arrazoia da azken urteotan gehien hazten ari dela eta hobekien egokitzen zaiola merkataritza-jarduera ikusarazteko ideiarri.

Nola lagun diezaikezu Getxoko herritarrei une honetan? galderari erantzunez, bideo errazak edo argitalpenak partekatzera gonbidatzen da, aholku edo gomendioekin, erakunde bakoitzak garatzen duen jardueratik abiatuta: landareak edo maskotak zaintzeko jarraibideak, yoga bidez erlaxatzeko gomendioak edo xakeari buruzko irakaspenak, sareko aperitiboetarako alkoholik gabeko koktel bat prestatzeko infusioak edo errezetak aukeratzeari buruzko aholkuak. Horiek guztiak, aurreko edizioetan egin diren jarduerak dira.

Kasu askotan, logikoa den bezala, laguntza beharko da tresna hori erraz

erabiltzeko. Hori dela eta, inprimaki bat prestatu da, mugimendu horrekin bat egin nahi duten pertsonen tresna hori zenbateraino ezagutzen duten jakiteko, eta online mintegiak antolatzeko, beharren arabera. Formulario honetara bit.ly/Formulario-GetxoAktibaTU estetik edo www.getxoaktibatu.com/eusk webguneko albisteen ataletik sar daiteke.

GetxoAktibaTUK dei egiten die mugimendu horrekin bat egin nahi duten pertsona eta eragileei, prestakuntza-laguntzaren bat behar badute, inprimakia ahalik eta azkarren bete dezaten, mintegien antolaketa arintzeko.

Gainera, prestakuntza-premiarik ez duen pertsona gonbidatzen du mugimendu hori bultzatzera, bere bideoak edo argitalpenak #GetxoAktibaTu etiketarekin argitaratuz, Getxoko zenbait negozio egiten ari diren bezala.

Zerbitzu berezia Getxoko enpresentzat eta langile autonomoentzat #COVID19

Udaleko Ekonomia Sustatzeko Arloak-Getxolanek aparteko baliabideak jarri ditu abian, udaleko langile autonomoentzat eta enpresentzat, #COVID19-ren ondorioei aurre egiteko hainbat erakunde publiko abian jartzen ari diren laguntzak eskuratu ahal izateko aipatutakoek behar duten informazio eta aholkularitza guztia izan dezaten.

- Merkataritzan eta ostalaritzan jarduer



ten duten enpresek hurrengora jo dezakete: Mirene Zabalgoeazcoa, mzabalgoeazcoa@getxo.eus

- Turismoarekin lotutako jardueraren enpresek hurrengora jo dezakete: Sonia Urdiain, surdiain@getxo.eus

- Eta jarduerara merkataritzan, turismoan edo ostalaritzan egiten ez duten enpresak hurrengoarekin jarri behar dute harremanetan: Idoia Belasko, ibelasko@getxo.eus

Konfinamenduan 15 egun baino gehiago igaro ondoren, getxotarrengana zuzentzen naiz berriro, adierazteko igarotzen ari zaren egoera desberdinetan zuengandik hurbil sentitzen naizela. Eskerrik asko zuen konpromisoagatik, ahaleginagatik eta sakrifizioagatik. Zuen pazientzia eta elkartasunagatik, alarma-egoera honi aurre egiteko. Zuen gizabidezko jokabideak, etxean geratuz eta prebentzio eta higiene-neurriak gordez, lana errazten die lehen lerroan egon behar duten pertsona guztiei; konfinamendua gorde ezin duten pertsona horiei guztiei. Lantalde horiek gabe ezin izango genuke egoera gainditu, egunez egun zaintzen gaituztelako.



Udalak atsedeenik gabe jarraitzen du lanean erakundeekin harremanetan eta koordinazio estuan, une bakoitzean erabakirik egokienak hartzen, koronabirusak eragindako egoera horri aurre egiteko. Gune berezietan garbiketa zerbitzuak indartu ditugu; egunero ari gara lanean, batez ere gehien behar duten pertsonengan (udal-egoitzarekin etengabe harremanetan) eta sektore ahulenetan (merkataritza...) indarra egiten. Udaltzaingoa ere lanean ari da konfinamendu neurriak betearazteko eta herritarrei ahal duten guztian laguntzeko. Gobernu taldea adi gaude, egunez egun sortzen ari diren auzi guztiei begira.

Aplikatzeko ari garen neurri guztiak eta sortzen ari diren ekimen guztiak gure udal webguneko Coronavirus atalean jasotzen dira: <https://www.getxo.eus/eu/servicios/avisos/1243>

Eskerrak eman nahi dizkiot Getxoko elkarte-ehunari, beti oso harro sentitzen garenaz. Beste behin ere, elkarrekin, klubak, erakundeak ... eredu izan dira, etxean geratuz eta konfinamendua eramangarriagoa egiteko ekimenak antolatuz. Eta eskerrak ere partikularrengandik eta erakundeengandik jasotzen ari garen elkartasun guztiari.

Azkenik, pazientzia eta animo mezu helaraztea. Asko geratzen zaigu aurretik, baina zuekin gaude hemen. Oritzapen berezi bat kaltetuta dauden pertsona guztiarentzat, haiek lehenbait lehen onera etortzea esperoz. Hau luzea eta gogorra izango da, baina elkarrekin aurrera aterako gara. Etxean jarraituko dugu, arduraz.

Amia Agirre
Getxoko Alkatea

Herritarren sormena sarituko du, berrogeialdian

Kultur Etxeak “Getxoko balkoiak” lehiaketa deitu du

Kultur Etxeak *Getxoko balkoiak* lehiaketa jarri du abian, berrogeialdian zehar Getxoko etxeetako balkoietan, terrazetan eta leihatiletan ematen diren esku-hartze artistikoen bidez herritarren sormena saritzeko. Egun hauetan berez gertatzen ari diren emanaldiak abiapuntutzat hartuta, Kultur Etxeak herritarrak animatu egiten ditu beren trebetasun artistikoak erakustera (antzerki-emanaldiak, musika-lanak, ipuin-kontalariak, magia-ikuskizunak, bertso-emanaldiak, dantza-koreografiak, txotxongiloak, irakurketa dramatizatuak ...), eta, horrela, kultura-sorkuntzaren jarraipenaren aldeko apustua egiten da alarma-egoeraren.

Lehiaketaren deialdia irekita egongo da egoera hori amaitu arte, baina ireki denetik ez da inolaz ere bi hilabete baino luzeagoa izango. Jarduerak edozein hizkuntzatan egin ahal izango dira, ez dute 15 minutu baino luzeago iraungo, eta balkoi, terraza, begiratoki, leihate, teilatu edo eraikin baten barruan jarduerak irauten duen bitartean kanpoaldera zabalik dagoen espazio batetik egin beharko dira. Ezin izango dira bidali pertso-



nen joan-etorriak eragiten dituzten edo alarma-egoera arautzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak urratzen dituzten proposamenak.

Getxon bizi diren pertsonak har dezakete parte, nahi adina esku-hartzeekin. [Kulturetxea@getxo.eus](mailto:kulturetxea@getxo.eus) helbidera mezuzi elektronikoki bidali beharko dute beren datu pertsonalen eta bideorako esteka bat erantsiz, bai eta azken hori sare sozialetara igo ere (Facebook eta Instagram erabiltzea gomendatzen da) #Getxokobalkoiak traolarekin, GetxoKultura

ere etiketatuz. Oinarriak <https://www.getxo.eus/eu/aula-de-cultura/noticias/341> webgunean daude eta Getxo Kulturaren sare sozialetan (Facebook, Twitter, Instagram) ere.

Sariak

600 euroko 10 sari ezarri dira 10 bide onentzat: *Atsegin dut*, *Like* edo antzeko gehien erregistratzen dituzten bostak automatikoki sarituko dira, eta gainerako bostak kalitate artistikoko irizpideak baloratuko dituen epaimahai batek emango ditu. Emaizta, beranduenez, parte hartzeko epea itxi eta 15 egunera emango da aditzera.

Ekitaldien data batzuk

Kultur Etxeak zenbait ekitaldiatarako data berriak ezarri ditu: *Revolver-en* kontzertua, irailak 18; *Etzerik txikiena* antzezlanak, urriak 2; *Liburu Azoka*, urriaren 15etik 18ra; *Nazioarteko Dantza Eguna*, urriaren 24ra; *Speedometer-en* kontzertua, urriak 31; *Pío Lindegaarden* omeneko jazz kontzertua, azaroaren 29ra eta *Pídeme perdón* antzezlanak, abenduak 5. Informazio gehiago: <https://www.getxo.eus/eu/aula-de-cultura/noticias/341>

Alokairu-kuota jaitea eskatu du Getxo Enpresak

#CaserosGenerosos Getxo kanpaina

Getxo Enpresa elkarteak #CaserosGenerososGetxo kanpaina jarri du abian. Merkataritza-lokalen jabeen elkartasuna eta eskuzabaltasuna eskatzen ditu elkarteak, alokairu-kuota eten edo jaitsi dezaten eta horrela *“Getxoko negozio txikiak orain dugun eta hurrengo hilabeteetan izango dugun egoera zail honi aurre egin ahal izan diezaioten”*. Elkarteak ez die bazkideei kuota kobratuko Alarma Estatuak irauten duen bitartean eta merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako jarduerak berreskuratzen den bitartean. Era berean, elkarteak enpresei neurrien berri ematen eta, hala badagokio, sektore ekonomikoari laguntzeko administrazioak argitaratzen ari diren laguntzak izapidetzen ari da.

ZUZENKETA

Martxoaren 12ko Getxoberriaren, akats analogiko bategatik, argitaratu zen 2021eko Partaidetza bidezko Aurrekontuen lehenengo fasean 560 galdetegi 1.975 ekarpenekin zenbatu zirela eta horren ordez, aipatu behar zen 559 galdetegi aurkeztuta, 1.212 proposamenekin, eta horietatik 1.093 baliozkoak izan dira. Behin betiko txostena laster argitaratuko da udalaren webguneko Partaidetza atalean.

Farmaziak koronabirusaren krisiaren aurrean

Farmaziek oinarritzkoa ez ezik funtsezkoa den gizarte-lana betetzen dute, osasun-produktuen salmenta hutsetik harago doana. Baina gizarte-lan hori gaur egun inoiz baino beharrezkoagoa dela iruditzen zaigu.

Getxoko farmaziei, bai eta gainerako farmaziei ere, oro har, sektore sozio-sanitarioaren zati garrantzitsua gisa, funtsezko eta ezinbesteko zeregina egokitu zaie koronabirusaren pandemiak eragindako krisi larri honi aurre egiteko orduan. Gainerakoentzat bezala, establezimendu horientzat ere pairatzen ari garen egoera honetan ahalegin handiagoa egin behar izatea egokitu zaie, pandemiari aurre egiteko. Alarma-egoera ezarri zenetik ia hiru aste igaro direnean, *Getxoberri* udalerriko bi farmaziarekin jarri da harremanetan, Algortako Sarria eta Areetako Arraterekin; izan ere, egoera berriak egunerokoan nola eragiten dien eta nola aurre egiten dioten jakin nahi dugu, lehen eskutik: munduko animo guztiekin daude, zorionez langileak oraingoz gaitzak ukitu gabe, ahalegin *“fisikoa baino gehiago, mentala”* eginez eta zerbitzu publikorako boka-zioa indartzuz.

Lehenik eta behin, osasun-larrialdiko egoerak eta alarma-egoerak ohikoak baino eskaera handiagoak egitera behartu dituzte farmaziak, kontuan hartuta gaixotasun kronikoak dituzten eta erregulartasunez medikamentuak behar dituzten pertsonen beren botikak agintzen edo errezetatzen dizkietela bi astetik gorako aldiatarako, Sarriatik adierazi digutenez, Algortako tradizio handieneko farmazietako bat. Osasun-krisiaren ondorioz, mota horretako establezimenduetan ere saltzen diren produktuen eskaera

handiagoa izan da, hala nola eskularru, maskara eta alkoholarena. *“Dena saldu da”* esan digute Sarriako ardura-dunek. Hala ere, eskuragarri dagoen stockajea –aipatutako produktuena eta hori erosteko aukera ere murriztu

egin dira, ospitaleetan dagoen lehen-tasuneko beharretatik eta baita hornitzaile edo bitartekari batzuen espekulazioarengatik ere, eskularruekin gertatu den bezala.

Arrate farmazian ere maskara eta es-

kularru izakinik gabe geratu dira, *“krisiaren lehen uneetatik eskari izugarria izan duten produktuak baitira”*, diote Arratetik.

Gainerakoan, Getxoko bi establezimenduetatik adierazi digute haien bezeroen portaera eredu-garria izaten ari dela, osasun-agintariek finkatutako protokoloan ezarritako segurtasun-neurri guztiak betetzen ari direlako, establezimendura sartzeko segurtasun-tartea eta txanda zainduz. *“Hasieran urduritasun handia egon zen baina orain gauzak lasaigo daude”*, gaineratu dute Arratetik.

“Maskara-19” kanpaina

Farmazien ahalegin kementsua ohikoa baino handiagoa izaten ari da, Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialak eta Foru Aldundiak sustatutako *Maskara-19* kanpainarekin ere bat egin dutelako. Kanpainaren helburua da, indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeak babestea eta koronabirusaren krisian emakume horiei laguntza eta arreta bermatzea. Izan ere, indarkeria matxistako egoera bizi duten edo indarkeria jasateko arriskua duten emakumeak gure lurraldeko edozein farmaziatara joan daitezke laguntza eske, modu diskretuan, arreta eskaintzen duten langileei esanez: *“Maskara 19”* (informaziorako eta arretarako telefonoa 900 840 111 da).

Getxoko bi farmaziek begi onez ikusten dute ekimen hori, positiboki baloratzen dute, eta uste dute hori gauzatzeko ahalegin erantsia izatea baino gehiago kanpainarekin bat egiteko betebeharra dela, mehatxua eta indarkeria matxista jasaten duten emakumei baliabideak, laguntza eta babesa eskaintzen jarraitzeko, baita korona-birusaren krisialdian ere. Eskerrik asko Getxoko farmaziei.

